

# Arantzazuko fraideak

## Gabon-kanten sortzaile eta kantari


Los frailes actuales llevan muchas rondas cantando villancicos por Arantzazu. Pero los frailes de Arantzazu hace muchísimos años que celebran la Navidad con una alegría sencilla; quizá desde el principio. Cuenta una tradición que en la Noche de Navidad del invierno de 1549 estaban aislados y sin alimentos, y un ángel les llevó la cena.

Arantzazu auzoko Gabon-errondak 35. itzulia egingo du aurten. Pello Zabalaren lekukotzari sinesten badiogu, 1976an eman zioten hasieran, gero urtez urte luzatu den ohiturari. Arantzazuko Seminarioan izan zuen hasiera, bertako irakasleek eraginda: Pello Zabala, Bitoriano Gandiaga, Joseba Etxeberria, Miel Loinaz, Antonio Aramendi, etab. Seminarioko kronikak 1979. urtean jaso zuen lehenbizikoz horren berri. Joseba Etxeberria izan da partehartzailerik finenartikoa, hasieratik bertatik, inoiz hutsik egin gabe, hantxe izan baita, berak dioenez.

Arantzazuko fraideek, ordea, azkoz lehena-gokoa dute Gabonak alaitasun xaloz ospatzeko ohitura, bertan bizi direnetikoa agian. 1549ko Gabon gauean elurpean bakartuta eta jatekorik gabe zeudelarik, aingeruak eraman omen zien afaltzekoa. Tradizio horren berri eman ondoren, honela dio Luis Basabek: "Por el júbilo que vibraba en los corazones de aquellos fervientes religiosos durante las fiestas de Navidad, nos muestran palpablemente los villan-

cicos que nos dejaron y en número de cincuenta tenemos recogidos en nuestro archivo" ("Páginas del Santuario. Las Navidades.- Los villancicos", in: Arantzazu, 1932: XII, 128. zenb., 19. or.)

XVI. mendeko Gabon kantarik ez dugu eza-gutzen, baina horrelakoak sortu eta zabaldu zaleak ziren nonbait antzinatek Arantzazuko fraideak Euskal Herrian. Zelestino Solagurennek honetara dio Manuel Antonio Zabalaren (Mungia, 1776 – Alcalá de Henares, 1830) biografia eskaintzean: "Ese año de 1803, y quizá desde algunos años antes, fue él quien compuso la música de los villancicos que se cantaron durante las fiestas navideñas en la iglesia de San Francisco. Con ello continuaba una costumbre que venía 'de casi immemorial tiempo'. (...) Se conocen villancicos anteriores, concretamente de 1755, con música del P. Martín Oarabeitia, organista y maestro de capilla del convento de Bilbao" (Los Franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclátor bibliográfico. II/il. Nomenclátor bio-bibliográ-



fico. 1808-1840, 459-460 or.). Horren bestelako zehaztasunik ere eskaini digu J. A. Arana Martijak ("Frantziskotarrak eta euskara", Euskera, XLVII [2002,2] 831. or.): "Villancicos en Basquence" izeneko bertso paper modukoa argitaratu zuten Bilboko San Frantzisko komentuan, organista zen Martin Oarabeitia frantziskotarrak konposatua –orrialde berean ematen digu Aranak mende haietan frantziskotarrek idatzitako beste hainbat Gabon-kantaren berri–.


1803ko kanta-sorta zela eta, gorabehera gogaikarrikeri ere gertatu zen Bizkaiko agintarien eta fraideen artean; dena dela, hurrengo urteetan berdin, eta aspalditiko ohiturari jarraituz, Gabon-kanten paperak inprimatu eta banatzen jarraitu zuten Bilboko San Frantzisko elizan, M.A. Zabalak musikatuta (ik. Z. Solaguren, o.c. II/I, 460. or.). Fraide musikari horrekin batera, Jose Ignazio Larramendi organista eta konpositore ospetsua (Azkoitia, 1786 – Arrasate, 1845) nabarmendu zen Gabon-kanten konposatzaile moduan fraide frantziskotarren artean XIX. mendean. Konpositorearen bizitzaren eta obra musikaren berri aski zabala ikus daiteke, Z. Solaguren beraren aipaturiko obran (II/II, 768-772 or.): "...hay entre ellas –konposizio musikalen artean–, a varias voces y con acompañamiento, muchas misas, salves, misereres y un número muy crecido de villancicos". Basa-

bek dioenez, Arantzazuko artxiboko gabon-kantetako hamabi Larramendirenak ziren.

J. Larrinaga historialari frantziskotarrak ere ezaguna zuen 1929an Bilboko San Frantzisko-ko 1755eko Gabon-kanta, lehenxeago bere eskuz artxibotik kopiatua zuena. Horren berri emateaz gain, Arantzazuko artxiboan aurkituriko beste bi Gabon kanta ere eman zituen argitara –"Aize egoarekin" eta "Poz zale zerate nere jendeak?" hasten direnak–: "Dos son los villancicos que, al fin, escogimos y copiamos en Aránzazu, de los que el uno lo clasificamos de Zortziko y el otro de endecasílabo, con una estrofa en amarreko..." Bere iritzi kritikoa gaineratu zuen historialariak: "Si musicalmente este villancico –bigarrenak– no vale gran cosa (por la razón arriba indicada nada podemos decir de su compañero), literariamente en cambio creemos que ambos son no sólo aceptables sino excelentes, sobre todo el primero, tanto por la solidez de su fondo, como por la variedad de conceptos y la pureza y nitidez de su léxico..." ("Dos villancicos vascos de Navidad", Aránzazu, 1929: IX, 103. zenb., abendua, 371-372 or.).

Aldizkari berean eman zigun Larrinagak XIX. mendeko beste Gabon kantabaten berri ere, Jose Antonio Uriarte euskalari eta itzultzaile ospetsuarena, oraingoan. "Barri, barriro beti" has-





ten da, 1862koa da eta 15 bertso ditu; Uriartek berak bildu eta eraturiko Poesía Bascongada bilduman ageri da ("Gabon-kantak. Bermeo-ko San Frantzisko-n 1862-n urtian", Aránzazu, 1933: XIII, 151. zenb., abendua, 372-373 or.). Hogeita lau Gabon kantabildu zituen Uriartek bere bilduman; gehien-gehienak autore-izenik gabe daude. Larrinagaren arabera, berak idatzitakotzat jotzekoak dira autore-izenik ez dakartenak. Bildumaren edizio kritikoa egin zuten Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiaren arabera, kanta horietako "batzuk bertso paperak jarraituz bildu zituen baina horrez gainera badago bilantziko kolekzio ederra bere orrialdeetan" (Poesía Bascongada. Dialecto Vizcaino, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 10. or.). Autore-izenik gabeko Gabon-kantotan zeintzuk diren Uriartek berak sortuak argitu gabe geratzen zaigu. Larrinagak jasotakoa behintzat, Bermeon 1862an datatua, berak idatzitakotzat ematekoa dela dirudi, hango komentuan bizi baitzen bera urte horretan. Arantzazu aldizkariak badu argitaraturik Uriarteren beste Gabon kantabat ere, "Gabon eguna da egun laburra" hasten dena (12 bertso), eta aipaturiko bere bilduman jaso ez zuena (Aránzazu, 1968: XLVII. zenb., abendua, orri-zenbakirik gabeko erdiko eranskinean).

XX. mendea oparoa dugu Gabon-kanten sortuntzan, Arantzazun eta Arantzazuko fraide-

en aldetik. Arantzazu aldizkariak berak, 1920an sortuta, 57 Gabon kanta argitaratu zituen ondorengo 80 urteetan. Ez dira denak frantziskotarrenak, jakina; baina horixe bera da aldizkariaren politika editorialaren adierazgarri, Gabon-kantak irekitasunez bere orrialdetan onartuz eta zabalduz.

Aldizkarian argitaraturikoak kontuan izanik, hiru fraide nabarmentzen zaizkigu Gabon-kanten sortzaile: Ignazio Omaetxebarria (Aritzondo), Salvatore Mitxelena eta batez ere Bitoriano Gandiaga. Antzik (Demetrio Garmendiak) ere badu Jesusen jaiotzari buruzko olerkia, baina ez dirudi kantatzeko idatzia denik. Arantzazu aldizkarian Gabonetako kanta edo bertso-sortaren bat argitaratu zuten bestelako autoreen batzuk aipatzearen, hona hemen zenbait euskal idazleren izen aski ezagun –ospetsurik ere bai–: Joan Garbizu (Zubigar), Estanislao Urruzola, Ziriako Andonegi, Txomin Agirre, Jose Manuel Arriola, Axentxio Elustondo (Axintxio).

Aldizkari berean argitaratu zituen bere Gabon-olerki eta -kantak Ignazio Omaetxebarriak, euskaraz ("Aritzondo" sinadurarekin) nahiz gaztelaniaz ("Fra Giacomino"). Aurrena, "¡Badator Jesus...!" izenekoa, 1934koa da (XIV, 163. zenb., abendua, 366. or.): Arantzazu bera kantatzen du bigarren ahapaldiak. Gaztela-

-da - rri-gai, Be-len - go Be - rri O - na

al-da - rri - gai, Be - len - go Be- rri O -

niazkoa, 12 ahapaldiko kanta luzea: "Pronto Ilegua Navidad" (Aránzazu, 1943: XXIII, 240. zenb. abendua, 254-255.

Foruko ikasle zelarik, 14 urteko mutiko, idatzi zuen Salvatore Mitxelena bere "Eguberri oparia" olerkia (1933) (ik. Salvatore Mitxelena, Idazlan guztiak, I, EFA, 1977, 5-6 or.). Gaztetan idatzitako Arraun eta Amets liburuan bildutako olerkien artean badu sail bat, "Gabon abestiak" izenekoa eta sei kantez osatua (ibid., 140-145 or.). "Belengo berriona / dakargu pozpozik" da horietan ezagunena; 1948an argitaratu zuen lehen aldikoz Arantzazu aldizkariak hamarrek txikian idatzitako kanta eder hori (hiru bertso) (XXVIII, 297. zenb., abendua, 276-177 or.). Sail horretakoak dira "Aterpe bila dabiltz" eta "Belengo Ama" ere.

Zalantzarik gabe Bitoriano Gandiaga dugu XX. mendeko euskal poetetan Gabon-kantariarik handiena eta oparoena. Berak idatzia duenez, mutikotatik zen Gabon-literaturaz zaletua. "Nik ez dakit noiztikoa dudan Gabonetan zerbait idazteko ohitura. Oso antzinakoa. Orduan erdaraz, baina Humanidadesetako hirugarren urtean Gabon opor guztiak igaro nituen sei eta hiru laurden [kalifikazioa] merezi izan zidaten Jesusen Jaiotzari buruzko bertsoak idazten". Hamazazpi aldiz ageri zaigu bera Arantzazu

aldizkarian Gabonen kantari. Horko kantarik gehien-gehienak –lau kenduta– bere Gabon dut anuntzio liburuan agitaratu zituen (1986). Autore bakarraren horrelako liburu monografikorik ez da besterik euskal literaturan behintzat. Sorta edo liburuxka txikiren bat edo beste bai, baina Gandiagaren liburuen tamainakorik inondik ere ez. Horretan sartu gabeko beste testu eta bertso-sorta askotxo du beselako liburu eta aldizkarietan argitaratu; argitaragabeak ere asko zituen, ia argitaratuak beste, oraintxe arte. Horietako gehienek Gabon dut anuntzio. Soinuz eta kantuz edizio berriaren (2010) bigarren atalean aurkitu dute beren lekua. Gandiagaren Gabon kantaeta testu guztiak irakur daitezke <http://www.gandiaga.com> webgunean, "Gabonak" sailekoak eskatuta: 150en bat denetara.

Gabon-literaturako beste mota bateko testu asko ere utzi zigun Bitorianok: Eguberri-tako zorion-agur laburrak, alegia. Senide eta adiskideentzako agur edo gutun oso pertsonalez gain, zenbait formula labur eta orokorrako ere idatzi ohi zuen urtero, gero hainbat laguni bidaltzeko. Horietako 150 inguru ikus daitezke aipaturiko Gandiagaren webgunean, "Gabon-agurra" sailekoak eskatuz.

**Paulo Agirrebaltzategi**